



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

16/02/09 Udaletxean 18.00-20.10



Gaurkoan bildu gara,

- Carlos Gonzalez (Irabazi)
- Eñaut Agirre (Herritarra)
- Adur Ezenarro (Bildu)
- Iñaki Dubreuil (PSE)
- Inaxio Mendizabal (Herri ekimena)
- Edurne Huesa (Landarlan Ingurumen elkarte)
- Patxi Arrospide (Herritarra)
- Emilia Roman (Herritarra)
- Miren Nekane Apaolaza (Herritarra)
- Jose Miguel Santamaria (Alkatea)
- Angelica Moreno (EAJ)
- Juan Ignacio Alonso (Ordizia Orain)
- Rosa Aurkia (Ingurumen teknikaria)

Gai ordena

Bileran ondoko gaiak landu ziren:

1. **Aurreko aktaren onarpena**
2. **Kronograma onartu**
3. **Prozedimendua landu**
4. **Galdera adostu**
5. **Hurrengo bilera**

Aktaren onarpena

TEKNIKARIA: Aurreko aktan Landarlan ingurumen elkartetik eta Irabazi-tik hainbat aldaketa egitea eskatu dute eta hauek aldatu dira eta gaur goizean azken bertsioa bidali dizuet. Gainera Landarlan-ek egin duen galderaren proposamena ere bidali dizuet.

BILDU: Guk euskarazko bertsioa onartzen dugu baina erderazko bertsioan ñabardura batzuk ditugu eta hauek bidaliko dizkizut.

TEKNIKARIA: BILDUK bidalitako ñabardurak aktan txertatuko ditut eta akta berriro denei bidaliko dizuet. Ondoren bi egunetako epea izango duzue edozein aldaketa egiteko, ez badut inongo erantzunik jasotzen onartutzat joko dut.



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

16/02/09 Udaletxean 18.00-20.10



Kronograma

TEKNIKARIA: Aurreko bileran Landarlan eta Bilduk kronograma beraien taldetan landu behar zutela esan zuten eta gaurko utzi genuen kronogramaren onarpena.

LANDARLAN: Kontsulta egiteko egun egokiena igandea ikusten dute. Aurretik egin nahi den asanblada informatiboa izan beharko luke, bestela kronograma hau ezin da bete.

ALKATEA: Gobernu Batzordean asanblada informatibo bat egingo genuela esan genuen. Asanblada honetan talde politiko guztiak elkarrekin kontsulta egiteko asmoa dugula azaldu behar da eta bilera hau kontsultarako abiapuntua izango da.

ORDIZIA ORAIN: Bilera informatiboa izan behar du, ez dago denborarik.

LANDARLAN: Horrela bada, gu kronogramarekin ados.

BILDU: Beraientzat ere kontsulta egun egokiena igandea da. Baina faltan botatzen dut komunikazio kanpaina jakitea argi eta garbi zer egingo den. Hau jakin beharra daukagu, kronograma hau onartu aurretik.

TEKNIKARIA: Guk proposamen bat landu dugu eta bihar Udaleko komunikazio arduradunarekin begiratuko dugu. Ondoren, guztioi bidaliko dizuegu hurrengo astearteko bileran landu ahal izateko.

PSE: Gu kronogramarekin ados gaude.

HERRI EKIMENA: Gu ere ados gaude.

Kronograma onartutzat eman da eta bihar komunikazio arduradunari bidaliko zaio komunikatu dezan.

Prozedimendua

BILDU: Kontsultarako prozedimendua datorren asterako finkatuta egon behar du. Helburu batzuk adostuta ditugu. Baina prozedimendu hau ez da galdeketarekin amaitzen. Jarraipen bat egin beharra dago eta helburuak ez badira betetzen erabaki behar da zein neurri zuzentzaile ezarri behar diren.

ALKATEA: Informazio kanpaina herritarrei esango zaie zein helburu dauden:

- Aukeratzen den sistemak Ordiziako gaikako bilketaren tasa mantendu edo handitu behar du, sistema eroso izan behar du, kostu txikiena



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

16/02/09 Udaletxean 18.00-20.10



duena eta jasangarritasuna handituko duena, herritarren kontzientziak bultzatuz.

- Sistema zelatatu egingo da.
- Neurri zuzentzaileak egongo dira helburuak lortzen ez badira.

BILDU: Erosotasunaren argudioa oso subjektiboa da. Batzuentzat erosotasuna da etxe azpian hondakinak uztea, besteentzat etxetik metro batzuetara uztea,....

EÑAUT: Mahai honek kontsulta egin ondoren lanean jarraitu behar du. Beste herrietan aurretik neurri zuzentzaileak zehaztu dira eta guk ere egin dezakegu.

PSE: Bilketa sistemaren jarraipena egon behar du. Helburutzat talde politiko guztiek adostutako hondakinen ordenantza bat onartzea dugu. Jarraipena mahai honek eman beharko luke. Neurriak orain lantzea azkarregi da, ondoren egin beharko litzateke.

BILDU: Herritarrei adierazi behar zaie erantzukizun bat dutela, helburuak daudela lortzeko eta ez badira lortzen neurri zuzentzaileak egongo direla. Ordiziarren betebeharra hondakinak gaika biltzea da, honek ordenantza bat lantzeko beharra erakusten du. Berdin da zein sistema erabiltzen den gaika bildu beharra dago.

IRABAZI: Kontsulta honen aurrekoa dago baina baita ere ondorena eta azken hau oso garrantzitsua da. Kontsulta ondoren organo bat behar da jarraipena egiteko. Oso zaila ikusten dut aurretik neurri zuzentzaileak ezartzea.

Bestalde, gaur egun dagoen atez-ateko sistema hobetu beharra dago, gehienak hori pentsatzen dugu. Guk helburu bezala, sistema bakarra adostea eta ondoren hau kontsultara ematea da.

Azalpenei mugak jartzea ez zaiola ondo iruditzen esaten du.



BILDU: Berak mugak ez dituela jarri erantzun du, baizik eta azalpen batzuk subjektiboak direla komentatu dut.

IRABAZI: Azalpen ezberdinak egon behar dute, beti ere gaikako bilketaren aurka joaten ez direnak izan behar dutelarik.

BILDU: Jarraipenaren aldetik, Sasetako hileroko datuak herritarrei eman behar zaizkie, informazio kanpainarekin jarraitu, udaleko aldizkaria erabili, web orrialdea,....

LANDARLAN: Gaikako bilketaren tasa ez genuen adostu, Landarlaneko proposamena %85 batetara iristea da. Minimoa ere ezarri beharko litzateke. Neurri zuzentzaileak egongo direla esan behar da eta gainera, jarraipenerako adierazleak beharrezkoak dira.

Palma de Mallorcan adibidez, kontrola eta zelata handituko dute eta isunak jarriko dira. Komunikazio eta sentsibilizazio kanpainak egingo dituzte.

	<p style="text-align: center;">Ordiziako hondakin mahaiaren bilera</p> <p style="text-align: center;">16/02/09 Udaletxean 18.00-20.10</p>	
---	---	---

LANDARLAN: Sasietak badauka bere ordenantza, artikuluko batzuk aplikagarriak dira. Adb: hondakinak ezin dira edozein lekutan utzi,....

ALKATEA: Lehenengo komunikazio eta sentsibilizazio kanpainak egin behar dira eta ondoren isunak jarri. Itsasondoren lehenengo sentsibilizazio kanpaina bat egin zen, Laia S.Coop enpresak egin zuena, eta helburuak azkar lortu ziren.

BILDU: Ordenantza guztiak isunak definitu behar dituzte.

LANDARLAN: Isunak ez dute multak izan behar, komunitateko lanak egitea izan daiteke. Azkenekoa multa jartzea da.

PSE: Ordenantzatan ez dira zehazten komunikazio eta sentsibilizazio kanpainak, bertan isunak azaltzen dira. Arazoak daude ordenantza hauek betearazten. Protokoloak ez dira existitzen. Udaltzaingoak kontrola eman behar du. Komunikazio eta sentsibilizazio kanpainak beharrezkoak dira.

EMILIA: Ez da egon informaziorik, atez-atekoa jarri denetik ez dugu daturik jaso. Informazioa eman beharra dago.

BILDU: Isunak sortzen du eragozpena. Garrantzitsua da isunen existentzia sentsibilizazio bezala. Gero beti daude mugak isunak jartzeko edo ez jartzeko.

ORDIZIA ORAIN: Neurri zuzentzaileak beharrezkoak dira. Hilero bidali behar da Sasietako informazioa. Baita ere ondo egin diren neurrien berri eman behar da. Beste udalerrietan, gaika ondo bereizten duenari hobariak ezartzen zaizkio. Kontrolaren inguruan, Hernanin kamerak zeuden eta orain kentzea behartu dituzte.



BILDU ETA LANDARLAN: Kamera bidezko kontrol hori ez da mahai honetan aipatu.

BILDU: Arrasaten %85eko gaikako bilketa tasa bat lortu dute baina hiru pertsona egon dira hezitzaile lanak egiten.

NEKANE: Zaborraren kontua ez da hemen hasten, baizik eta atez-atekoaren aurretik eta ondoren. Informatzeko ez dakit zein bide erabiliko den, azaldu zer izan den atez-ate gabe, ondoren,..... bere balioa emanez. Atez-atekoa jarri behar zenean bilera informatibo asko egin ziren eta bilera hauetan gaika bildu behar zela esaten zen. Atez-atekoarekin gaika biltzea garrantzitsua dela esan nahi det.

Mallorca eta beste herrialdeetatik jende asko etortzen da gure sistema ezagutzera.

Herriaren laguntza behar dugu, lurrera botatzen duenak lurrera botatzen jarraituko baitu.

	<p style="text-align: center;">Ordiziako hondakin mahaiaren bilera</p> <p style="text-align: center;">16/02/09 Udaletxean 18.00-20.10</p>	
---	---	---

ALKATEA: Sistema alde batera utzita, garrantzitsua da gaika biltzea. Adb: Arrasaten %85 bat lortu dute.

BILDU: Baina datu hau lortu da hezitzaileak zeudelako.

LANDARLAN: Gure artean adostasun handi bat lortzen badugu, herritarrentzat pisu handia izango du. Atez-atekoarekin adostasuna ez zen oso handia baina lagundu du datu hobetoak lortzen. Azkenean, inguruak ere hezi egiten du.

IRABAZI: Inkesta bidez herritarrei galdetu zein neurri zuzentzaile ezarriko zituzten.

EÑAUT: Agian gu baino zorrotzagoak jartzen dituzte.

BILDU: Herritarrak badaki ingurumen onurak daudela baina onura ekonomikoak daudela ere esan behar da.

IRABAZI: Auzoen arteko konpetentzia sortu al daitekeen galdetzen du.

BILDU: Sasetak auzoetako bilketa datuak emateko zailtasunak izango ditu.

ORDIZIA ORAIN: Hau Donostian egin zen, Gros-eko auzoan.

PATXI: Auzoz auzo teknikoki kontrolatzea zaila da. Herrien arteko konpetentzia egin daiteke baina batzuk ezin dira konparatu tipologia ezberdinengatik.

IRABAZI: Jarri daiteke non dauden puntu beltzak, garbitasuna,.....

BILDU: Isunik gabe eta daturik eman gabe, gaizki dauden puntuen argazkiak jarri daitezke.

EMILIA: Hori dena beharko da.

BILDU: Konpostaren gaiari ere garrantzia eman behar zaio. Sasetako teknikariak esan zuen bezala ez da biltzen eta ez da tratatzen, merkeena da. Ingurumen onurak dituela garbi dago, baina onura ekonomikoak dituela ere esan behar da.

LANDARLAN: Kantsultari buruzko prozedimendua landu behar dugu. Gure ustetan, mahaiaren Udal langileak egon behar dute. Ekimen demokratiko bat da. Herritarrak hauteskundeetako mahaietan parte hartu beharra dute baina kontsulta honetan hori ezin dugu egin ez baitago inongo Legerik hau betearazteko.

Bolondresak eskatuko balira,, herritar guztiek hauteskundeetan parte hartzeko eduki beharko luketen arduraren aurka goaz. Gainera, denboran asko luzatuko da.



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

16/02/09 Udaletxean 18.00-20.10



IRABAZI: Ados dagoela esaten du baina oreka bat bilatu nahian, mahaiaren bi pertsonak egotea proposatzen du, bata Udal langilea eta bestea herritar langabe bat.

ORDIZIA ORAIN: Lege aldetik Udal langile batek egon beharra dauka, datuak babesteko legearengatik.

LANDARLAN: Beraiek filosofia aldetik esaten dute. Hauteskundeetan langabetuak ez dituzte jartzen, herritarren artean zozketa egiten da.

ALKATEA: Sinplifikatu egin behar da. Herritarrak egon nahi badute egoteko aukera izan behar dute.

PSE: Prozedimenduarekin jarraituz, nork daukan bozkatzeko aukera galdetzen du.

BILDU: 16 urtetik gorakoak erantzuten du

Denak ados honekin.

PSE: Nola identifikatuko diren galdetzen du.

PATXI: Edozein dokumentu identifikatzailarekin, baina ezin du fotokopia izan.

IRABAZI: Bozkatu dezaketen herritarren zerrenda lehenago sortu behar da.

BILDU: Errolda oso bizia da. Itxiera data bat jarri behar da eta agian dudak izango ditugu boto gutxi batzuekin.

PATXI: Errolda zonaka banatuko den edo osoa jarriko den galdetzen du. Norbait zona batetan erroldatuta egon daiteke eta beste zona batetan bizi. Egun bateko errolda hartu eta itxi egin behar da.

IRABAZI: Komunikazio kanpainan hau dena azaldu behar da.



HERRI EKIMENA: Bakoitza ohituta dago bere zonan botoa ematea.

ALKATEA: Hauteskundeetan 8 mahai egoten dira 5 auzoetan banatuta.

HERRI EKIMENA: Beraiek kontsulta egin zutenean 6 mahai jarri zituzten.

PSE: 4 mahaiekin nahikoa da. 8 Udal langile beharko dira eta hauen ordezkook. 8-13 Udal langile behar dira. Egun osoko lana denez, 12 ordu, bakoitzari 20 ordu jai tokatzen zaizkio.

BILDU: Datuen kontuagatik funtzionarioak egon behar dute.

	<p style="text-align: center;">Ordiziako hondakin mahaiaren bilera</p> <p style="text-align: center;">16/02/09 Udaletxean 18.00-20.10</p>	
---	---	---

PSE: Beraien lanetan ez da sartzen eta nahi ahal duten galdetu egin beharko zaie.

ALKATEA: Lehenengo galdetu egingo zaie.

PSE: Funtzionarioek edo zinegotziek erabili dezakete errolda. Zerrenda prestatu daiteke beharrezkoak diren datuekin bakarrik.

ALKATEA: Hauteskundeetan idazkaria egun guztian zehar egoten da eta ondoren, bi administrari erroldaren zaintzaile bezala.

IRABAZI: Ez dago inongo lege juridikorik herritarrak behartzeko.

BILDU: 16 urtetik gorako zerrenda horretan nor sartzen den esan beharra dago.

PSE: Botoa presentziala izan behar al duen galdetzen du.

IRABAZI: Txartel elektronikoarekin botoa eman daitekeela erantzuten du.

ALKATEA: Kanpoan denbora bat daraman pertsona baten botoa nola bermatzen dugun galdetzen du.

HERRI EKIMENA: Botoa delegatu dezakeela erantzuten du.

ALKATEA: Boto delegazioa ez da onartuko.

IRABAZI: Publikoki esan beharra dago martxoaren 13an kontsulta eguna dela.

PATXI: Donostiako prozedimenduaren arabera Boletinean argitaratzea beharrezko da. Azkoitiako eredu sinpleagoa zen.

IRABAZI: Donostiakoa konplexuagoa da.

BILDU: Boto ez presentzialakin zer egin behar den galdetzen du.

EMILIA: Aste bat lehenago leku bat jarri kontsultako egunean botoa eman ezin dutenentzat.

IRABAZI: Correos bidez botoa emateko aukera eskatu dezatela.

PSE: Correos-eko funtzionamendua ikusita, denboraz iritsi daiteke baina ez dagokion mahaira. Correos bidezko botoaren aukera ematen bada, prozedimenduan ezarri beharra dago.

ALKATEA: Azkoitian udaletxeko bulegoetan bozkatzeko aukera zegoen.

BILDU: Korreos bidez ez dute askok egingo, eszepzio bat izango da.



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

16/02/09 Udaletxean 18.00-20.10



PSE: Arreta bulegoan hautestontzi bat jarri daiteke eta bozkaren harrera bertako langileek egin dezatela.

EÑAUT: Errolda noiz itxiko den galdetzen du.

IRABAZI: Otsailaren 25ean plenoa egongo da eta errolda itxi daiteke. Udal web orrialdean jarri daiteke posta bidez botoa emateko eskaera orria.

PSE: Mahaietan talde politiko guztietako ordezkariak egotea ez dut beharrezkoa ikusten. Mahai bakoitzean 1-2 interbentore jartzea nahikoa da.

BILDU: Aste bat lehenago bozkatzeko aukera erabaki egin behar dela esaten du.

PATXI: Mahaiakoek boto nuloekin zer egin behar duten eta nola jakingo duten nuloa dela galdetzen du.

IRABAZI: Erroldak gehiago kezkatzen dio.

PSE: Ordurako TAG-a (tecnico de administración general) egongo al den galdetzen du.

ALKATEA: Ez dakiela erantzuten du.

PSE: Kontrol batzordea zein izango litzatekeen galdetzen du.

BILDU: Mahai hau eta aholkularitza juridikoa erantzuten du.

ALKATEA: Prozedimendua moldatuta bidaliko dugu eta hurrengo bileran aztertuko dugu.

BILDU: Aktan eranskin bezala txertatu.

BILDU: Udal langileei galdetu behar zaie parte hartuko duten, zenbat ordainduko zaien, prozedimenduaren borradorea moldatuko da,.... Hurrengo astean hau lantzen jarraitzen dugu.

Kontsultarako galdera

TEKNIKARIA: Hiru galdera proposamen daudela komentatzen du.

- Hiru sistema aukeran jartzen dituen: Bilduk aurkeztu duena.
- Bi sistema aukeran jartzen dituen: Gehienak egin duzuen.
- Modelo adostu baten gaineko kontsulta planteatzen duena: Irabazik aurkeztu zuen.



Ordiziako hondakin mahaiaren bilera

16/02/09 Udaletxean 18.00-20.10



NEKANE: Herritarren erantzun onena bermatuko duen sistemarik egokiena aukeratzera daraman galdera izan beharko litzateke. Mahai honetakoak erantzukizun bat daukagu. Herrian zaborra ikusten da.

PSE: Donostiako prozedimenduan galdera zuzena eta zehatza izan behar duela jartzen du. Galdera egin eta erantzuna baiezkoa edo ezezkoa izan dadila. Hau ezinezkoa bada, galderan erantzun posibleak joan daitezkeela jartzen du.

NEKANE: Nik atez-ate baina neurri zuzentzaileekin jarriko nuke.

TEKNIKARIA: Planteamendu hori proposatu daitekeen eredu bat izan daiteke.

BILDU: Aukeran jartzen diren sistemek adostutako gaikako tasa lortuko dela bermatu behar dute. Guk proposatzen ditugun hiru sistemek bermatzen dute. Nik galderari baino garrantzi gehiago ematen diren helburuei emango nieke. Neurri zuzentzaileak egongo direla jarri beharra dago. Horregatik, adostutako helburuak lortzeko balio duen edozein sistema izan liteke, eta zentzu horretan, ezin da edukiontzi kolektiboak soilik esan, horren baitan helburuak betetzen ez dituen sistema bat egon badagoelako. AI modeloak ez du tasa hori bermatzen eta ez da baliagarria. Edukiontzi kolektiboak jartzen badira zehaztu behar da organikoa eta errefusarenak chip-arekin izango direla. Kontsultarako sistema bat adosten badugu eta ondoren kontsultako erabakian ezetz ateratzen bada, berriro beste kontsulta bat egin behar da.

PATXI: Merkatariren bat ez badago Ordizian errolatuta bozkatu ahal dezaken galdetzen du.

BILDU: Komertzioetako bilketa apartekoa da, bilketa berezi bat da. Lazkaoko merkatariek beraien denda aurreko bilketa mantentzea eskatu dute.



IRABAZI: Galdetzen du ea komertzioek ordaintzen ari al diren bilketa berezi hau. Billabonan lortu duten adostasuna gustukoa. Edukiontziak chip-arekin edo atez-atekoa hobetua eta herritarrek bozkatu behar dute adostasun baten gainean.

LANDARLAN: Komertzio edo tabernetako hondakinen bilketa atez-atekoa da.

BILDU: Sasetak gainera esan zuen orain pertsonalizatuagoa zela.

LANDARLAN: Bilketa totaletik komertzioetako bilketari dagokion ehunekoa ezagutu beharko genuke.

EÑAUT: Komertzioetako bilketa honek etxeko hondakinen bilketa merkeagoa egiten du, ez Lazkaon bezala, azkenen komertzioak edukiontziak erabiltzen dituzte eta orain bilketa egun gehiago jarri behar izan dituzte.

	<p>Ordiziako hondakin mahaiaren bilera</p> <p>16/02/09 Udaletxean 18.00-20.10</p>	
--	---	---

BILDU: Komertzioko bilketa ez doa etxeko bilketarekin batera. Bilketa bereziago bat da espezializazio gehiago emango duena.

ORDIZIA ORAIN: Donostiako parte zaharrear $\%90$ batean biltzen da.

LANDARLAN: Baina Donostiako gaikako tasa datu honetatik oso urrun dago.

ALKATEA: Komertzioko tasetatik 103.284 € jasotzen dira. Tasen $\%20a$ jasotzen da.

Tarifak:

- Komertziok 4 langile edo gutxiagokin: 199,86 €
- Komertziok 4 langile baino gehiagokin: 328,31 €
- Elikagai komertziok eta tabernak janaririk gabe: 272,66 €
- Tabernak janariarekin eta 5 langile baino gutxiago: 446,02 €
- Jatetxeak 5 langile baino gehiago eta elikagai komertziok 3 langile baino gutxiagokin: 1.238,86 €
- Industriak 10 edo langile gehiagokin: 1.497,38 €
- Elkarateak: 446,02 €
- Pub-ak: 446,02 €
- Pagosa: 3.279,07 €
- Eroski: 10.399,26 €
- Aukera: 1.000 €
- Izar-Alumalan: 919,25 €
- Albisu: 919,25 €

LANDARLAN: Elkarateak jatetxeak bezala kontsideratzen al diren galdetzen du.

ALKATEAK: Elkarateak jatetxeak bezala ordaintzen dute.

LANDARLAN: Elkarateetako bilketa nola egingo den galdetzen du.

BILDU: Elkarateetako bilketa zailagoa da, egunero ez baitira bertan egoten.



LANDARLAN: Beraiek proposatzen duten galdera zein den azaltzen du:

Bilketa sistemarekin lortu nahi den helburua: $\%75a$ lortu beharko da gutxienez edozein dela ere aukeratzen den sistema, eta $\%85a$ helburua izango da. Etengabe bilketa tasa eta hondakinen kalitatearen jarraipena egingo da eta hobetzeko neurriak hartuko dira.

Hori lortzeko bilketa sistema aukera ezazu:

- ATEZ-ATEKO BILKETA: papera, ontziak, organikoa eta errefusa ontzi txikietan eta egutegi baten arabera

edo

	<p style="text-align: center;">Ordiziako hondakin mahaiaren bilera</p> <p style="text-align: center;">16/02/09 Udaletxean 18.00-20.10</p>	
---	---	---

- EDUKINONTZIEN SISTEMA MISTOA: papera eta ontziak edukiontzien bidez egunero, eta organikoa eta errefusa ontzi txikietan atez-ate egutegiaren arabera.

LANDARLAN: Erabaki behar da pixoihalentzat edukiontzia jarri behar den ala ez.

NEKANE: Edukiontzi hau ezinbestekoa da.

LANDARLAN: Adosten badugu hau ez da galdetuko kontsultan. Gainera, inpropioen gaia ere kontutan hartu behar da. Lezon adostu dute bilketa sistema, sistema mistoa, EAJ, BILDU eta plataformekin batera.

ALKATEA: Landarlanek ez du planteatzen bosgarren edukiontzia.

LANDARLAN: Sasietari herri ezberdinetako balantzean zutabe batzuk eranstea eskatu genion. Ez zutela egingo erantzun zuten eta azkenean berak egin du. Herri bakoitzaren ondoan gaikako bilketaren batezbestekoa eta errefusa eta organikoaren tasak jarri ditut, denak 2015eko datuak, beraien artean konparatzeko.

Gabiriari dagokionez, hauen bilketa berezia da, organikoa bertan tratatzen baitute.

Zegaman edukiontziak chip-arekin daude.

Ormaiztegi, Ataun, Legazpin,.... Sistema mistoa dute.

Itsasondon %83ko tasa lortu da, ekonomikoki garestiagoa da.

ALKATEA: Itsasondon lehen sistema mistoa zegoen eta gaikako bilketaren tasa handiagoak lortu ziren.



EAJ: Legazpiko sistema ez da mistoa. Bi aukeratan biltzen da, bai atez-ate bai edukiontzi bidez. Sistema guztiekin biltzen zuten.

LANDARLAN: Sarituak izan dira organiko gutxi biltzen dutenak. Nahiz eta asko ordaindu sarituak izan dira.

ALKATEA: Hauek gure herrietako gastuak onartu dituzte. Guk atez-atekoarekin genuena.

LANDARLAN: Gaika gutxi biltzen dutenak ingurumen kostua handitu egiten dute.

ALKATEA: Beasainek adibidez ingurumen kostu handiagoa du. Hondakindegia bertan dutelako.

	<p>Ordiziako hondakin mahaiaren bilera</p> <p>16/02/09 Udaletxean 18.00-20.10</p>	
---	---	---

BILDU: Gaikako bilketa handiak izan ditugun herriak, Sasietari diru-sarrera handiagoak eman dizkiogu. Tasa altuetan, errefusa gutxiago jasotzen da, honela, zabortegean leku gehiago uzten dute besteentzat, honela leku honetan errefusa sartzen da eta ondorioz diru sarrera gehiago. Errefusa gutxitze horregatik irabazi bat sortu da.

TEKNIKARIA: Galderarekin jarraituz, nola egingo dugun galdetzen du.

IRABAZI: Bozketa bat egin behar denez aukera ezberdinekin, guk proposatzen ditugun aukerak:

- Atez-atekoaren hobekuntza bat
- Edukiontzia chip-arekin: ezarri noiz ireki eta zenbat aldiz.

Orain dagoen atez-atekoak ez du babesik ezta botoak aldeko, hobetu beharra dago.

PATXI: Atez-atekoa hobetuta edo edukiontzia chip-arekin.

EÑAUT: Azalpen guztiak jarri behar dira.

LANDARLAN: Atez-ateko ontzi txikiak ez dute chip-arik, kodigo bat dute. Katalunian saria eman dute ontzi hauetan chip-a jartzeagatik (organikoaren kuboan). Atez-atekoan hobekuntzak jarri daitezke, pixoihalentzat edukiontzia, jarraipen handiagoa,....

IRABAZI: Zuen proposamenean atez-atekoa hobetuta jarri eta ondoren erabaki sistema hau edo edukiontzia chip-arekin.

PSE: Batzuk oraingo atez-atekoarekin ados daude.



ORDIZIA ORAIN: Guk ez genuen galdera luzatu nahi baina azkenean egin beharko dut. Hiru aukera izan behar ditu, ez polarizatzeko. Eskoriatzan galdera hau egin zen.

LANDARLAN: Legazpin egin zen galdera ez zen batere zuzena izan.

BILDU: Adostasuna guztion planteamenduen batuketaz lortu beharko dugu, beste modu batean lortzen ez badugu.

Ondorioz, 3 aukerak jarri beharko ditugu, ez garelako ados jartzen hirutik bira, edo bakarrera igarotzeko. Gauzak horrela, hurrengo bilerarako utziko dugu ea 3 aukera horien artean murrizteko adostasuna lortzen dugun, eta bestela bere horretan uzten dugu.

IRABAZI: Galdetzen du ea norbaitek, edo partidu politiko batek edo entitate sozial batek botoa eskatuko al duen gaur egungo atez-atekoari atez-ateko mistoari eskatu beharrean. Eskoriatzan atez-atekoari ez zitzaion botorik eman. Babesik gabeko aukera bat jartzeak ez du zentzurik, gaur egungo bilketa

	<p style="text-align: center;">Ordiziako hondakin mahaiaren bilera</p> <p style="text-align: center;">16/02/09 Udaletxean 18.00-20.10</p>	
--	---	---

sistema honen bultzatzaileek ere aukera hobea bat dagoela ere pentsatzen baitute.

PSE: Herritarren artean atez-atekoaren aldekoak badaude.

LANDARLAN: Ni atez-atekoaren alde nago. Atez-atekoa demonizatu egin da. Legazpin edukiontzi grisa jarri dute, txikiagoa da baina 2-3 poltsa sartu daitezke.

PSE: Hau dena komunikatu egin behar da.

IRABAZI: Kronograma onartu da eta komunikatu daiteke.

20:10 bilera amaitutzat eman da.

Hurrengo bilera

Hurrengo saioa otsailaren 16an arratsaldeko 18:00etan izango da Ordiziako Batzar Aretoan.

Bertan, ondorengo gai-ordena lantzea aurreikusten da:

- Aurreko aktaren onarpena
- Galderaren sarrera eta galdera adostu
- Kontsulta prozedura adostu
- Komunikazio kanpainaren edukiak landu